

Carlos Sáenz de Tejada

**BI GARAI,
ILUSTRATZEKO
BI MODU**

Judith Sáenz de Tejada

**DOS ÉPOCAS,
DOS MANERAS
DE ILUSTRAR**



Carlos Sáenz de Tejada
**BI GARAI,
ILUSTRATZEKO
BI MODU**

Judith Sáenz de Tejada
**DOS ÉPOCAS,
DOS MANERAS
DE ILUSTRAR**

KATALOGOA
CATÁLOGO

Ignacio Aldecoa Kultura Etxean egindako erakusketa
2025eko abenduaren 15etik 2026ko apirilaren 25era

Exposición celebrada en la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa
entre el 15 de diciembre de 2025 y el 25 de abril de 2026

Carlos Sáenz de Tejada | Judith Sáenz de Tejada

Bi garai, ilustratzeko bi modu | Dos épocas, dos maneras de ilustrar

© 2025 Testuenak / De los textos: autoreak / sus autoras y autores

© 2025 Irudienak / De las imágenes: autoreak / sus autoras y autores

Argitaratzailea · Edita:

Arabako Foru Aldundia. Kultura eta Kirol Saila

Diputación Foral de Álava. Departamento de Cultura y Deporte

Koordinatzailea · Coordina:

Ignacio Aldecoa Kultura Etxea

Casa de Cultura Ignacio Aldecoa

Argitalpen data · Fecha de publicación: 2026

Bilduma · Colección:

Liburutegiko erakusketak 2

Exposiciones de la biblioteca 2

Inprimatzailea · Imprime:

Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia

Imprenta de la Diputación Foral de Álava

Katalogoaren diseinua · Diseño del catálogo: Diego Solloa

Lege Gordailua · Depósito Legal: LG G xxxxx

ISBN: xxxxxxx

PASEN Y VEAN...

Dicen los diccionarios que denominamos ilustración al dibujo, pintura, viñeta o grabado que embellece, documenta y recrea acompañando al texto impreso de una narración.

La ilustración nos aporta una mirada particular del texto, que nos ayuda a comprender y nos invita a entrar en el mundo mágico del autor.

Las ilustraciones que acompañan esta exposición son tan diversas y eclécticas como sus autores: Carlos y Judith Sáenz de Tejada.

Os invitamos a disfrutar de ella, sin prejuicios ni recelos, dejando que la imaginación vuele y el placer de contemplar el arte en sus distintas formas de expresión os guíe.

Pasen y vean.



SARTU ETA IKUSI...

Hiztegiek diotenaren arabera, narrazio baten testu inprimatuarekin batera doan marrazki, margolan edo grabatuari ilustrazioa esaten diogu, eta testu hori edertzen, dokumentatzen eta birsortzen du.

Ilustrazioak idazlearen mundu magikoa ulertzeko eta kontakizunean sartzeko gonbidapena egiten digu, testuaren gaineko ikuspegi berezia eskainita.

Erakusketa honetan topatuko dituzun ilustrazioak beren egileak bezain anitz eta eklektikoak dira: Carlos eta Judith Sáenz de Tejada.

Erakusketa aurreiritzirik eta errezelarik gabe goatzera animatzen zaituztegu. Utz ezazu irudimena hegari egiten eta har ezazu gidatzen artearen adierazpen modu anitzei begiratzeko plazera.

Sartu eta ikusi...



LA CAVERNA DEL DIBUJO

Inmaculada Corcho Gómez

Durante mucho tiempo ha prevalecido la idea de que el ilustrador es un artista menor que supedita su creación a la de otros -artistas o intelectuales- que establecen sobre su obra limitaciones temáticas y técnicas, que realizan sus trabajos por encargo sometiendo sus creaciones a un circuito comercial destinado al gran público, y que su inspiración deriva, no de la experiencia personal, sino del material que se le proporciona. Sin embargo, cada vez más, la ilustración está siendo entendida como un lenguaje propio y los ilustradores aceptados como artífices de propuestas creativas originales.

Históricamente se ha entendido que la ilustración debía, literalmente, ilustrar, explicar e iluminar el texto, y no crear y motivar sentimientos autónomos con la misma entidad e intensidad que la literatura a la que acompañaba. En otras muchas ocasiones, la ilustración solo era un complemento decorativo para que el artista mostrara sus habilidades. El ilustrador ha estado siempre relegado a interpretar papeles secundarios, como historiador social, representando la vida y las gentes de manera realista o nostálgica, como periodista gráfico describiendo la actualidad de manera crítica o jocosa, o como maestro del mundo haciendo

MARRAZKIAREN HAITZULOA

Inmaculada Corcho Gómez

Denbora askoan ilustratzailea maila txikiagoko artistatzat hartzeko joera nagusitu zen: ilustratzailearen sorkuntza-lana beste artista batzuen mende zegoen, beste artista horien gaiek eta teknikak bere lana mugatzen zutelako; lan-eskaeren arabera jarduten zuen; bere lanak publiko zabalari zuzendutako merkataritza-zirkuitu batera bidaltzen zituen; eta inspirazioa alde aurretik emandako materialetik hartzen zuen, bizipen pertsonaletatik hartu beharrean. Gaur egun, ordea, gero eta handiagoa da ilustrazioa berezko lengoaiatzat hartzeko joera, eta onartu egiten da ilustratzaileek sormen-proposamen interesgarriak egiten dituztela.

Iraganean pentsatu ohi zen ilustrazioak, hitzak dion bezala, testua ilustratu, azaldu eta argitu behar zuela, baina, literaturak ez bezala, ilustrazioak ezin zuela sentimendu indartsu eta berezirik sortu edo piztu. Askotan ilustrazioa apaingarritzat baino ez zen hartzen, artistak bere trebetasuna erakutsi zezan. Ilustratzaileak, beraz, bigarren mailako rolak interpretatu behar izaten zituen beti: gizarte-historialaria, bizitza eta biztanleak modu errealistan eta nostalgikoan irudikatzeko; kazetari grafikoa, egunerokotasuna ikuspegi kritiko edo umoretsu

que la ciencia, la naturaleza o la tecnología sean más entendibles para todos. Esto hizo que dentro de nuestra educación tradicional supeditemos el lenguaje visual a la escritura, concibiendo la ilustración como un mero elemento de acompañamiento que ameniza y hace más llevadera la lectura y no reparamos ni demos importancia al hecho de que la ilustración es en sí misma un lenguaje estructurado, con sus normas semánticas y sintácticas, y que también requiere de un proceso de aprendizaje de lectura visual.

Como en la caverna de Platón, los ilustradores han ido alcanzando nuevas realidades y ampliando sus horizontes. El panorama actual de la ilustración confirma esa evolución desde el elemento decorativo y descriptivo de siglos pasados hasta la obra de arte que interpreta y recrea una historia y un argumento, estructura un discurso y ofrece un mensaje más allá de un concepto o idea preestablecida. El paso de los formatos tradicionales que daban soporte a la ilustración, a otros enteramente visuales como el álbum ilustrado, la novela gráfica, el libro objeto, pero también, la señalética, la animación o los juegos electrónicos, pone de manifiesto que también se ha ido desarrollando una nueva capacidad de lectura visual sobre el lenguaje dibujado y nuevos usos para ello. El tema abre múltiples discusiones a nivel pedagógico, cognoscitivo, sociológico, pero no en este breve texto que sólo quiere esbozar cómo ha cambiado la ilustración en las últimas décadas.

Pero la ilustración no solo ha cambiado en cuanto a concepto y forma. Del mismo modo que el final del siglo XIX supuso un paso definitivo para la industria de la imprenta -y por tanto de las imágenes impresas- la revolución digital de finales del siglo XX ha hecho que la producción de obras u objetos ilustrados alcance una nueva dimensión tanto para los creadores como para los productores y distribuidores. Puede que este factor de innovación conculque aquel aspecto denostado de que la ilustración es un producto para consumo de masas, pero lo que es innegable es la diversificación que la ilustración puede alcanzar y la proyección cultural que ello determina. La riqueza creativa del autor puede ser igual a la que los ilustradores tenían hace un siglo, pero la agilidad de producción y de distribución de sus obras es infinitamente mayor ahora que entonces. Si bien es cierto que algunos procesos, como los de la animación, requieren una planificación y producción más larga y costosa que la de la ilustración impresa.

batetik azaltzeko; edo munduko irakaslea, guztioi zientzia, natura edo teknologia ulertzen laguntzeko. Horren ondorioz, ohiko hezkuntzan lengoaia bisuala idatziaren mende jarri dugu, eta pentsatu dugu ilustrazioa irakurketa edertzeko edo arintzeko elementua baino ez zela; beraz, ez gara ohartu ilustrazioa, berez, lengoaia egituratua dela, arau semantikoak eta sintaktikoak dituela, eta ikasketa-prozesua behar dugula lengoaia bisuala irakurtzen jakiteko.

Platonen haitzuloan bezala, ilustratzaileek pixkanaka errealitate berriak aurkitu eta zeruertzak zabaldu dituzte. Ilustrazioaren gaur egungo egoerak bilakaera hori berresten du. Lehenago, elementu apaingarri eta deskribatzailetzat hartzen bazen ere, gaur egun istorioa edo argudioa birsortzen duen artelantzat hartzen da; are gehiago, diskurtsoa egituratzen du, eta aldeztu aurretik ezarritako kontzeptu edo ideien mezutik harago joaten da. Ilustrazioen formatu tradizionalen ordez, gaur egun formatu erabat bisualak ditugu, hala nola album ilustratua, eleberri grafikoa, liburu-objektua, seinaleetika, animazioa edota joko elektronikoak. Horrek agerian uzten du marrazkien lengoaiaren irakurketa bisuala egiteko gaitasuna garatzen ari garela, baita horretarako erabilera berriak ere. Gaiak askotariko eztabaidak pizten ditu eremu pedagogikotik, kognitibotik eta soziologikotik. Testu labur honetan, ordea, ilustrazioaren azken hamarkadetako bilakaera baino ez dugu zirrimarratu nahi.

Dena den, ilustrazioaren kontzeptua eta forma ez diren beste alderdi batzuk ere aldatu dira. XIX. mendean inprenta-industrian eta, hartara, irudi inprimatuan urrats handia egin zen, eta XX. mendearen amaierako iraultza digitalak ere obra eta objektu ilustratuak produzitzeko beste dimentsio bat zabaldu zien sortzaileei, produktoreei eta banatzaileei. Agian berrikuntza-faktore horrek ezabatuko du ilustrazioa masen kontsumorako produktua delako ustea. Dena den, jada agerikoa da ilustrazioaren dibertsifikazioa, bai eta horrek berekin ekartzen duen proiektio kulturala ere. Idazleen sormen-aberastasuna ilustratzaileek aurreko mendean zutena bezalakoa izan daiteke, baina obrak askoz ere bizkorrago sortzen eta banatzen dira gaur egun. Halaber, egia da prozesu horietako batzuek (adibidez, animazioari lotutakoek) ilustrazioak inprimatzeak baino denbora eta kostu handiagoa eskatzen dutela.

Berrikuntza eta teknologia funtsezkoak izan dira obra ilustratuak egiteko. XIX.





La innovación y la tecnología han sido fundamentales para la realización de obras ilustradas. A mediados del siglo XIX, las nuevas técnicas permitieron dejar atrás la impresión por serigrafía y litografías para dar paso al huecograbado y el fotograbado. Esto permitió el aumento de ilustraciones a plana completa, almanaques, tapas estampadas, postales o números extraordinarios realizados a color por medio del uso de la tricoloría y la cuatricoloría. Todas estas innovaciones, además de una repercusión económica, tuvieron un efecto estético innovador y para ello era fundamental el trabajo conjunto de artistas, editores, grabadores e impresores, teniendo cada uno de ellos capacidad para modificar el resultado de la imagen, en este sentido eran fundamentales las indicaciones que los artistas introducían en sus originales y pruebas de color, anotaciones que debían ser entendidas y ejecutadas en las mesas de retoque por los grabadores y, en las rotativas por los impresores. En la actualidad, el proceso de reproducción sigue siendo similar en cuanto a la relación de artistas e impresores, sin embargo, la reproducción final requiere menos necesidades de manipulación desde que sale de las manos del artista hasta que llega a las máquinas de impresión y el control de la obra final por parte del su autor es más factible gracias a las comunicaciones y la digitalización, que agilizan las relaciones. Evolución que ha jugado en contra de la importancia técnica que tenían los grabadores para que el original en papel, cartón o lienzo fuera transferido con la mejor calidad a la plancha o rodillo de imprenta, oficio el de grabador totalmente desaparecido hoy en día de este campo.

Vivimos momentos de una enorme producción de material ilustrado, en las librerías los libros ilustrados han desplazado a los libros de texto; la literatura infantil, apoyada en los recursos visuales, crece como nunca antes lo había hecho. La presencia de la ilustración digital para animación de películas, series, juegos, publicidad o material técnico (simulaciones, infografías, modelos y maquetas) se ha convertido en un hecho habitual. La oferta de imágenes responde a una demanda de comunicación eminentemente visual por parte de una sociedad que comienza a deambular entre una realidad física y una realidad virtual, aceptando con naturalidad ser un avatar que habita un mundo ilustrado.

mendearen erdialdeko teknika berrien eraginez, serigrafiaren eta litografiaren bidezko inprimaketa atzean utzi zen, eta sakongrabatua eta fotograbatua nagusitu ziren. Horrek aukera eman zuen plano osoko ilustrazioak, almanakak, tapa estanpatuak eta postalak egiteko, eta, trikromia edota kuartikromia erabiliz, kolorez egindako ale bereziak osatzeko. Berrikuntza horiek guztiek, ondorio ekonomikoak izateaz gain, eragin estetiko berritzailea ere izan zuten. Horretan funtsezkoa izan zen artistek, editoreek, grabatzaileek eta inprimatzaileek batera lan egitea. Haietako bakoitzak irudiaren emaitza aldatzeko aukera zeukan, eta zeregin horretan berebiziko garrantzia izan zuten artistek jatorrizko lanetan eta kolore-probetan sartutako oharrek, grabatzaileek (aldaketak egiteko mahaian) eta inprimatzaileek (errotatiban) ohar horiek ulertu eta gauzatu behar zituztelako. Gaur egun, erreprodukzio-prozesua oraindik ere antzekoa da, artisten eta inprimatzaileen arteko harremanari dagokionez; hala ere, amaierako erreprodukzioak manipulazio-premia txikiagoak eskatzen ditu lana artistaren eskutik irten eta inprenta-makinetara iristen den arte. Bestalde, egilearentzat bideragarriagoa da amaierako lana kontrolatzea, komunikazioek eta digitalizazioak harremanak bizkortzen dituztelako. Bilakaera horrek, ordea, grabatzaileen garrantzi teknikoa ezabatu du. Grabatzaileak arduratzen ziren paperez, kartoiz edo mihisez egindako jatorrizko irudia inprentako plantxara edo arrabolera ahalik eta kalitate handienez eramateaz, baina grabatzaileen lanbidea ia desagertu da.

Gaur egun material ilustratu ugari ekoizten da, eta liburu-dendetan testu liburuek baino leku handiagoa dute liburu ilustratuek. Haur-literatura, zeina baliabide bisualetan oinarritzen baita, inoiz ez bezala egiten ari da gora. Pelikulen, sailen, joken, publizitatearen edo material teknikoaren animazioan (simulazioetan, infografietan, ereduetan eta maketetan) ohikoa da ilustrazio digitala erabiltzea. Irudien eskaintzak, beraz, gizartearen eskaera bisualari erantzun dio. Gaur egungo herritarrok errealtate fisikoaren eta birtualaren artean ibiltzen gara, eta naturaltasunez onartzen dugu mundu ilustratu bateko abatarrak izatea.

UNA CASA EN LAGUARDIA

Susana Koska

Una de las casas más antiguas de la villa de Laguardia es testigo de la vida y la obra de dos ilustradores: Carlos Sáenz de Tejada y su nieta, Judith Sáenz de Tejada.

La casa Tejada enmarca e influye. Erigida sobre los muros de una torre del siglo X, la reconocemos remodelada al estilo del siglo XVI. Generaciones de cónsules, diplomáticos, hombres y mujeres de las artes y las letras han dejado en ella su impronta.

Cada rincón de esta casa imponente alberga leyendas ancestrales y seguramente alguna contemporánea.

Es una casa vivida, llena de historia y obras de arte.

Carlos Sáenz de Tejada llegó a Laguardia por primera vez cuando tenía 12 años, su vida quedó unida a la casa para siempre. En ella pintó muros y escaleras, rehabilitó estancias, colgó en sus paredes bocetos juveniles y retratos familiares. A lo largo de su vida la cuidó con mimo y añadió tesoros a la biblioteca.





GUARDIAKO ETXE BAT

Susana Koska

Guardiako hiriburuko etxe bat ilustratzaile biren bizitzaren eta lanaren lekukoa da. Zehazki, Carlos Sáenz de Tejada eta Judith Sáenz de Tejada, beraren iloba, ilustratzaileena.

Tejada etxeak esparrua eskaintzen eta eragina sortzen du. X. mendeko dorre bateko murruek gainean eraikita, XVI. mendeko estiloaren arabera eraldatu zuten. Hainbat belaunalditako kontsulek, diplomatikoek, artistek eta letra-adituek beren aztarna utzi dute etxean.

Etxe bikain horretako bazter bakoitzean aspaldiko kondairak eta, ziur asko, kondaira garaikideren bat ere, gordetzen dira.

Etxe horretan bizi egin da, eta bizitza horiek etxea istorioz eta artelanez bete dute.

Carlos Sáenz de Tejada 12 urteko mutila zen Guardiara heldu zenean. Harrezkero, bere bizitza etxe horri lotu zitzaion betiko. Etxeko hormak eta eskailerak margotzeaz gain, gela osoak birgaitu zituen, eta hormetan eskegi

Judith Sáenz de Tejada ha vivido la casa desde su más tierna infancia. Juegos, travesuras y experimentos artísticos se han perpetrado entre los tapices y murales pintados por su abuelo.

La casa familiar de Laguardia con sus secretos y sus tesoros une familiarmente a estos dos artistas de sus vanguardias, distintas generaciones, pero un destino en común; ilustrar para dar vida y color a las palabras.

zituen gazterian egindako bozetoak eta familiaren erretratuak. Bertan bizi bitartean maitasun handiz zaindu zuen etxe hori, eta liburutegiari altxor batzuk gehitu zizkion.

Judith Sáenz de Tejada etxe horretan bizi da txiki-txikitatik. Jokoak, bihurrikeriak eta saiakuntza artistikoak egin ditu aitonak margotutako tapizeriaren eta muralen artean.

Guardiako familia-etxeko sekretuek eta altxorrek abangoardiako artista bi horiek lotzen dituzte. Belaunaldi ezberdinetakoak izan arren, helmuga partekatzen dute: ilustratzea, hitzak bizitzaz eta kolorez betetzeko.

CARLOS SÁENZ DE TEJADA

El arte es algo muy religioso

Carlos Sáenz de Tejada nace por casualidad en Tánger, donde su padre es cónsul de Orán, el 22 de junio de 1897.

Cursa su educación primaria en la École Secondaire Ecclésiastique de Oloron, Francia.

A los 11 años, toma sus primeras clases de dibujo y pintura con Daniel Cortés, discípulo de Joaquín Sorolla.

Su formación, bajo la tutela de sus tíos Consuelo y Antonio de Lezama continúa en Madrid. A los 12 años visita por primera vez Laguardia, localidad alavesa donde se alza centenaria la casa familiar, arraigada desde ese primer encuentro firmemente a su vida.

Sus estudios de pintura están decididos y prepara su acceso a la Escuela de Bellas de San Fernando en Fomento de las Artes. Siendo muy joven empieza a colaborar como dibujante en *El Liberal* y *La Esfera*. Cuando sus tíos le ceden unas habitaciones para su uso personal, llena sus paredes de murales.

CARLOS SÁENZ TEJADA

Artea oso erlijiosoa da

Carlos Sáenz de Tejada, kasualitatez, Tanger herrian jaio zen 1897ko ekainaren 22an, aita Orán herriko kontsula zela.

Frantziako Oloron herriko École Secondaire Ecclésiastique eskolan ikasi zuen Lehen Hezkuntza.

Hamaika urte zituela, marrazkigintza- eta margolaritza-eskolak jasotzen hasi zen Daniel Cortesen eskutik, Joaquín Sorollaren ikaslea izan zena.

Bere prestakuntza Madrilen osatzen jarraitu zuen, Consuelo eta Antonio de Lezama izebaren eta osabaren ardurapean. Carlosek 12 urte zituen Guardia lehenengo aldiz bisitatu zuenean. Gaur egun ehunkako urteak dituen etxe hori irmo lotu zitzairen familiako sustraiei, lehen topaketa horretatik.

Carlosek margolaritza-ikasketak egingo zituela erabakita zegoen, beraz, bere burua Fomento de las Artes izeneko sozietatean prestatzen hasi zen Arte Ederretako San Fernando Eskolan sartzeko (gaztelaniaz, Escuela de Bellas Artes de San Fernando).

El curso 1915-16 ingresa en la Escuela de Bellas Artes de San Fernando. Allí conoce a Joaquín Valverde, Rosa Chacel o Ismael Cuesta al que le unirá una amistad para toda la vida. Juntos alquilan un estudio en la Travesía del Horno, al que con el tiempo se sumarán otros compañeros para compartir gastos. Organizan salidas a los bajos fondos madrileños para captar apuntes costumbristas. A aquellas citas nocturnas, dicen, se unía un joven estudiante llamado Dalí. A la tertulia que se organiza en la Travesía del Horno acude a menudo su tío Ramón Gómez de la Serna, con variopintas personalidades de las vanguardias, como la diseñadora de moda Sonia Delaunay, quien abrirá a Carlos nuevos horizontes artísticos con su novedoso uso de la forma y el color. Juntos crearán figurines y carteles para el circo Americano y el circo Seiffer y años después volverán a unir sus talentos haciendo figurines para las revistas de moda parisinas.

El curso 1919-20 fue fundamental para Carlos. Joaquín Sorolla imparte en la Escuela de Bellas Artes de San Fernando clases de Colorido, Composición y Paisaje. Todo un privilegio para el estudiante Tejada, su influencia es mayúscula en el joven artista.

Culminada su formación académica, obtiene una succulenta beca y la medalla de fin de carrera. Mientras trabaja en *La niña triste*, ya son habituales sus viñetas en el periódico progresista *La Libertad*.

En 1923 pinta su primer gran mural fuera de las paredes de su casa: la decoración del Palacio del Hielo. Pero el 23 es un año trágico para Tejada: su padre fallece en abril y Sorolla, su maestro, en agosto. Carlos, hijo único, queda devastado y se refugia al amparo familiar de sus tíos Consuelo y Antonio.

Sonia Delaunay propone a Tejada que participe en uno de sus proyectos de moda: la revista *Elegancias*. Se presenta en la Exposición de Artistas Ibéricos con: *Pim, pam, pum*, *Retrato de Paco Santa Cruz* y *Niña peinándose*. Se inicia el rodaje de la película experimental *Colorín o la flor de las Vistillas* dirigida por Adolfo Aznar en el estudio de la Travesía del Horno. Inicia una larga colaboración con la *Revista de Occidente* y con el suplemento cultural *La novela de La Libertad*.

Una noche el estudio de la Travesía del Horno es pasto de las llamas, allí arde gran parte de la obra de sus años de estudiante. Decide entonces no hacer más pintura de caballete y reafirmarse en su faceta de ilustrador.



Repartemosele Chanel

29

Lombroso. Modèles Le Monnier
 à Picot negro 2° par grand color
 ray 2° modèle de Lombroso
 d'après de Lombroso 2° par grand color

Monday



C. S. de T. J. J. J.

Oso gazte zela, marrazkigile gisako elkarlana egiten hasi zen *El Liberal* egunkarian eta *La Esfera* aldizkarian. Izebak eta osabak gela batzuk laga zizkieten, eta Carlosek horma-irudiz bete zituen.

1915-1916ko ikasturtean Arte Ederretako San Fernando Eskolan ikasten hasi zen. Bertan Joaquín Valverde, Rosa Chacel eta Ismael Cuesta ezagutu zituen, eta bizitza osoko lagunak bilakatu ziren. Elkarrekin Travesía del Horno kalean estudio bat alokatu zuten, eta, denbora igaro ahala, beste kide batzuk ere gehitu ziren, gastuak partekatzeko. Madrilgo kale marjinaletara joan ohi ziren ohar kostunbristak hartzera. Gaueko irteera horietan Dalí izeneko ikasle gazte batek ere parte hartzen zuen. Travesía del Hornoko estudioan hizketaldiak antolatzen zituzten, eta Ramón Gómez de la Serna, beraren osaba, ohiko solaskidea zen. Beste abangoardiako artista batzuek ere parte hartzen zuten, besteak beste, Sonia Delaunay moda-diseinatzaileak. Soniak forma eta kolorea era berritzailean erabiltzen zituen, eta horrek ikuspegi artistikoak zabaltu zituen Carlosi. Elkarrekin figurinak eta kartelak egin zituzten El Gran Circo Americano eta Seiffer zirku-konpainientzat. Geroago, beren talentua berriro elkartu zuten Parisko moda-aldizkarietako figurinak egiteko.

1919-1920ko ikasturtea funtsezkoa izan zen Carlosentzat, Joaquín Sorollak Arte Ederretako San Fernando Eskolan koloreari, konposizioari eta paisaiari lotutako eskolak eman zituelako. Tejada ikaslearentzat pribilegio hutsa izan zen, eta Sorollak biziki eragin zion artista gazteari.

Behin prestakuntza akademikoa amaituta, beka mamitsu bat eta karreraren amaierako domina lortu zituen. *La niña triste* margolanean jardun bitartean, *La Libertad* egunkari progresistan binetak egin ohi zituen.

1923an bere lehen mural handia margotu zuen etxetik kanpo: Madrilgo Izotz Jauregiaren dekorazioa. Hala ere, 1923. urtea tragikoa izan zen Carlosentzat: aita apirilean hil zen, eta Joaquín Sorolla maisua, abuztuan. Carlos seme bakarra zen, beraz, galera horrek biziki jo zuen. Consuelo eta Antonio izeba-osabarenera babes bila joan zen.

Sonia Delaunayk Carlos Tejadari proposatu zion moda-proiektu batean elkarrekin lan egitea; zehazki, *Elegancias* aldizkariarentzat. Carlosek Artista Iberikoen

Mientras sigue un curso de profesorado en San Fernando, solicita una beca para seguir ampliando sus estudios en París.

El 5 de mayo de 1926, Carlos Sáenz de Tejada y Luz Benvenuti se casan en Madrid, ese mismo día, viajan en tren a París. Se instalan primero en un pequeño estudio de Montparnasse y después con la llegada de su primera hija Marí Luz en 1928, se mudan a Saint Maur des Fossés. Pronto es contratado por la editorial *Hachette* y como jefe de artistas en *Jardin des modes*. Colabora también en la prestigiosa revista argentina *Martín Fierro*.

La editorial *La Pléiade* le encarga la ilustración de *Carmen*, de Merimée. Trabaja para las revistas *Femina*, *La Petite Illustracion* y *L'illustracion*. Los figurines de moda son su principal sustento, pero pinta algunos retratos, como el de Antonia Mercé, *La argentina*, que también le encarga el cartel, los figurines y los escenarios para el Ballet Español. Trabaja para el *Vogue* parisino, sin firmar sus dibujos, por una incompatibilidad entre grupos editoriales. Colabora con la revista de Filadelfia *Ladies' home journal* y con Walter Thomson en proyectos de diseño industrial.

Son años de trabajo frenético, un logro en un París rebosante de ismos y de artistas emergentes en busca de gloria. Carlos es un dibujante refinado y elegante, concienzudo, de una timidez que le incapacita para la vida social parisina, sin embargo es un trabajador incansable.

En 1929 realiza los figurines, cartel y escenarios para el *Bolero* de Ravel en el Teatro Metropolitano de Nueva York. Colabora en la revista de moda alemana *Elegance Welt* y en *Cosmópolis* sus creaciones ilustran los textos de la Condesa de Gramont. Nace su segunda hija Teresa, ese mismo año, en diciembre muere su madre en Laguardia.

La década de los 30 se inicia colaborando con *Blanco y Negro*, *Abc* y el suplemento *Actualidades*. También lo hará en las revistas inglesas y estadounidenses como *The Illustrated London News*, *The Sketch*, *New York American* o *Daily News*.

Erakusketan honako lan hauek aurkeztu zituen: *Pim, pam, pum*, *Retrato de Paco Santa Cruz* eta *Niña peinándose*. Garai hartan *Colorín o la flor de las Vistillas* pelikula esperimentala Travesía del Hornoko estudioan filmatzen hasi zen, Adolfo Aznar-en zuzendaritzapean. *Revista de Occidente* aldizkarian eta *La novela de La Libertad* eranskin kulturean elkarlana egiten hasi zen, eta luze iraun zuen.

Gau batean sugarrek Travesía del Hornoko estudioa hartu zuten, eta ikasle-garaiko lan asko erre ziren. Artean erabaki zuen margolanak astazaldian egiteari uztea, eta ilustratzaile gisa berrindartzea. San Fernando eskolan irakasle izateko ikastaro bat egiten ari zen bitartean, beka bat eskatu zuen Parisen ikasketak sakontzen jarraitu ahal izateko.

1926ko maiatzaren 5ean, Carlos Sáenz de Tejada eta Luz Benvenuti Madrilen ezkondu ziren, eta egun horretan bertan Parisera bidaiatu zuten trenez. Hasieran Montparnasse auzoko estudio txiki batean bizi ziren, eta, geroago, Mari Luz izeneko lehen alaba 1928an jaio zenean, Saint Maur des Fossés hirira lekualdatu ziren. Handik gutxira *Hachette* argitaletxeak kontratua egin zion, eta *Jardin des modes* enpresako artisten nagusi gisa ere jarduten zuen. Horrez gain, ospe handiko *Martín Fierro* argentinar aldizkarian elkarlana egiten hasi zen.

La Pléiade argitaletxeak eskatu zion Merimée egilearen *Carmen* lanaren ilustrazioak egitea. Garai hartan, *Femina*, *La Petite Illustracion* eta *L'illustracion* aldizkarietan ere lan egiten zuen. Modako figurinek bere diru-sarrera nagusiak osatzen zituzten, baina erretratu batzuk ere margotu zituen, besteak beste, Antonia Mercé, *La argentina*, artistarena. Antonia Mercék Ballet Españolaren kartela, figurinak eta eszenatokiak egitea eskatu zion. Parisko *Vogue* enpresan ere lan egin zuen, baina ez zituen marrazkiak sinatu, argitaletxe-taldeen arteko bateraezintasuna zela eta. Horrez gain, Filadelfia *Ladies' home journal* aldizkarian elkarlana egin zuen, baita Walter Thomson-en industria-diseinuko proiektuetan ere.

Urte horietan erritmo bizian lan egin zuen Parisen. Lorpen handia izan zen, garai hartan artista eta mugimendu ugari Parisen sortzen ari zirelako. Carlos marrazkigile fin, dotore eta arduratsua zen. Oso lotsatia izanik, ez zuen Parisko gizarte-bizitzan parte hartu. Aitzitik, langile nekaezina zen.

BALLETS
ESPAGNOLS



ARGENTINA

TEJADA
XXVII



En otoño de 1933 el matrimonio Tejada Benvenuti se traslada definitivamente a Madrid, donde nace Carlos, su tercer hijo. Durante este año, realiza la viñeta de portada para *La Libertad* y mantiene sus colaboraciones en revistas y periódicos internacionales.

En 1934 se constituye la Sociedad de Amigos de Laguardia de la que será socio fundador junto con Álvaro Gortázar, Hermenegildo de Lera y Ricardo Buesa entre otros, con la intención de salvaguardar y mejorar el patrimonio, conservar las tradiciones y emprender las primeras excavaciones arqueológicas en los dólmenes de la zona. Se inicia el proyecto del museo etnográfico donde se custodian y exhiben objetos y documentos relacionados con la historia de la villa.

A su ya dilatada cartera de colaboraciones en revistas se suman las publicaciones *Cartel* y *Ciudad*.

El 18 de julio de 1936, cuando estalla la guerra civil, Carlos Sáenz de Tejada tiene 39 años, tres hijos y una carrera extraordinaria como ilustrador. La familia está veraneando en la casa de Laguardia, que queda dentro de la zona nacional. Algunas de las publicaciones españolas en las que colabora dejan de editarse. Hace dibujos sobre la contienda para la agencia artística Johnson de Londres que irán apareciendo en *The Sphere* y *The Illustrated London News*.

Tejada, que es un hombre profundamente religioso, afligido por los acontecimientos, preocupado por el devenir incierto de la guerra y las tragedias familiares, ofrece sus servicios a la Delegación de Prensa y Propaganda. Empieza a colaborar con la revista *Vértice* en portadas, figurines e ilustraciones literarias. Se le proporciona un coche y un pase para la libre circulación en los frentes lo que facilita su trabajo para tomar apuntes y notas en primera línea.

En 1938 realiza dos carteles por encargo del Auxilio Social. Sin embargo, tanto su colaboración con *Vértice* como con la Delegación de Prensa y Propaganda no son del agrado de Carlos, que se siente ofendido por la manipulación de su obra. Acepta entonces la oferta de *Ediciones Españolas* como director artístico y por ello se traslada con la familia a Sevilla. En 1941 renuncia a su cargo, junto con el director literario y otros miembros de la plantilla. La politización, falsificación

1929an Ravel-en *Bolero* ikuskizunaren figurinak, kartela eta eszenatokiak egin zituen, New Yorkeko Antzerki Metropolitanorako. Alemaniar *Elegance Welt* modako aldizkarian elkarlana egin zuen, eta *Cosmópolis* argitaletxearen Gramonteko Kontesaren testuak ilustratu zituen. Bere bigarren alaba, Teresa, jaio zen, eta urte bereko abenduan Carlosen ama Guardian hil zen.

1930eko hamarkadaren hasieran *Blanco y Negro*, *Abc* argitalpenean eta *Actualidades* argitalpenaren eranskinean elkarlana egin zuen. Horrez gain, Ingalaterrako eta Amerikako Estatu Batuetako aldizkari batzuekiko lankidetzak egiten zuen, besteak beste, honako hauekin: *The Illustrated London News*, *The Sketch*, *New York American* eta *Daily News*.

1933ko udazkenean Tejada-Benvenuti familia Madrilera bizitzera joan zen, eta bertan hirugarren semea, Carlos, jaio zen. Urte horretan *La Libertad* aldizkariaren lehenengo orrialdeko bineta egin zuen, eta nazioarteko aldizkarietan eta egunkarietan elkarlana egiten jarraitu zuen.

1934an Sociedad de Amigos de Guardia izeneko elkarteak osatu zuen. Carlos Sáenz de Tejada kide fundatzailea izan zen, Álvaro Gortázar, Hermenegildo de Lera eta Ricardo Buesa kideekin batera, beste batzuen artean. Asmoa ondarea babestea eta hobetzea, tradizioak zaintzea eta zona horretako dolmenetan lehen arkeologia-indusketak egitea zen. Museo etnografikoaren proiektua egiten hasi ziren, hiriburuko historiari lotutako objektuak eta dokumentuak bertan zaintzeko eta erakusteko.

Aldizkarietan egiten zuen elkarlan-zerrenda luzea bazen ere, *Cartel* eta *Ciudad* aldizkarietako argitalpenak ere gehitu zizkion.

1936ko uztailaren 18an, Gerra Zibila hasi zenean, Carlos Sáenz de Tejadak 39 urte zituen, hiru seme-alaba eta ilustratzaile gisako karrera bikaina. Urte hartako udan familia Guardiako etxean zegoen oporretan, beraz, esparru nazionalen. Espainiako aldizkari batzuek, non elkarlana egiten baitzuen, argitaratzeari utzi zioten. Gerrari buruzko marrazkiak egin zituen Londresko Johnson agentzia artistikoarentzat, eta *The Sphere* eta *The Illustrated London News* argitalpenetan erakusten ziren.

y manipulación de su trabajo es patente en los ocho tomos de la colección *Historia de la Cruzada Española*.

Se incorpora como profesor en la Escuela de Artes y Oficios de Madrid en la asignatura Dibujo Artístico. La familia se establece en la casa de la calle Tambre. Comienza a trabajar en una serie de litografías que titulará *Vistas de España*. Realiza los cuadros murales para la Unión Española de Explosivos.

Regresa a la moda por un tiempo, realizando ilustraciones literarias en la revista *Mujer* y ejerciendo como director artístico de la revista mensual *La Moda de España*.

El 23 de febrero de 1944, una orden ministerial establece la enseñanza especial de Dibujo de Ilustración en la Escuela Central de Bellas Artes a cargo de Carlos Sáenz de Tejada. La docencia le apasiona y nunca dejará de impartir clases, continuando con sus clases en la Escuela de Artes y Oficios donde coordina Proyectos y las asignaturas de Pintura Mural.

Aunque comienza a experimentar con cerámica, su trabajo como ilustrador es incesante. Ilustra *Metternich* y *Las Atlántidas*, *Aventuras de Juan Lucas* y *El dolor de la tierra-Zogoibi*. Realiza decoraciones en barcos. Hace los figurines de *Edipo Rey*.



Tejadaren erlijio-sinesmenak oso sakonak ziren, eta oso hunkituta eta larrituta zegoen gerraren bilakaera ezjakinarengatik eta familiako ezbeharrengatik. Gauzak horrela, bere zerbitzuak eskaini zizkion Delegación de Prensa y Propaganda izeneko ordezkariari. *Vértice* aldizkarian elkarlana egiten hasi zen, lehenengo orrialdeak, figurinak eta literatura-ilustrazioak osatzen. Ibilgailu bat eta baimena eman zizkioten fronteetan aske zirkulatu ahal izateko, beraz, aukera izan zuen oharrak gerraren lehenengo lerroan hartzeko.

1938an bi kartel egin zituen Auxilio Social erakundeak eskatuta. Hala eta guztiz ere, Carlosek ez zituen atsegin *Vértice* aldizkarian eta Delegación de Prensa y Propaganda ordezkari izan egiten zuen elkarlana, bere obra manipulatzeko zutela sentitzen baitzuen, ofendituta. Garai hartan, Ediciones Españolas argitaletxeko eskaintza onartu zuen, zuzendari artistiko gisa, beraz, familiarekin batera Sevillara joan zen bizitzera. 1941ean bere lanpostuari uko egin zion, literatura-zuzendariarekin eta beste kide batzuekin batera. *Historia de la Cruzada Española* bilduman agerikoak dira beraien lanaren politizazioa, faltsutzea eta manipulazioa.

Madrilgo Arte eta Lanbide Eskolan (Escuela de Artes y Oficios) Marrazki Artistikoko irakasle gisa hasi zen. Familia Tambre kaleko etxe batera lekualdatu zen. Litografia batzuk egiten hasi zen, eta *Vistas de España* izenburua eman zieten. Unión Española de Explosivos enpresako koadro muralak egin zituen.

Denboraldi batez, moda-eremura itzuli zen, eta *Mujer* aldizkariaren ilustrazio literarioak egin zituen. Horrez gain, *La Moda de España* aldizkari zuzendari artistiko gisa ere jarduten zuen.

1944ko otsailaren 23an, ministerio-agindu baten bidez, Ilustrazio Marrazkiak irakasgai berezia Arte Ederretako Eskola Nagusian ezarri zuten, Carlos Sáenz de Tejadaren ardurapean. Irakaskuntza biziki interesatzen zitzaion, eta inoiz ez zion eskolak emateari utzi. Arte eta Lanbide Eskolan eskolak ere ematen jarraitu zuen, proiektuak koordinatzen eta Horma Irudiak irakasgaia irakasten.

En 1946 gana la Primera Medalla de la Exposición Nacional de Bellas Artes con la edición de *Don Juan Tenorio*, de Zorrilla, un proyecto en el que trabaja sin descanso durante tres años. No son buenos tiempos para su salud: tras una grave operación, la convalecencia se le hace eterna. Sin embargo completa las ocho láminas que ilustran la edición de la novela de Wenceslao Fernández Flórez: *El bosque animado* y termina la novela ejemplar de Cervantes, *La española inglesa* y también *Cien años de Ferrocarril en España*.

Es nombrado Catedrático de la asignatura Dibujo de Ilustración en la Escuela de Bellas Artes de San Fernando. Donde fue un aplicado estudiante, será un dedicado profesor.

En 1950 es nombrado director artístico de la Casa de Naipes Heraclio Fournier, donde se ocupará de la decoración de los murales de la nueva sede de la fábrica, así como de la creación e ilustración de naipes y de una serie de ediciones de libros de lujo para bibliófilos.

Su hija Teresa se casa con Ignacio Briones en Laguardia.

Muere Consuelo de Lezama en Chile, donde se exilia con el tío Antonio tras la guerra. Para Carlos, la muerte de la tía Consuelo es tan desgarradora como la de su propia madre.


Gana el Premio de Dibujos y Grabados de Escenas Militares. Proyecta la decoración del Hotel Plaza de Madrid.

La de los 50 es una década fecunda. Es nombrado presidente de la Asociación de Dibujantes Españoles. Continúa haciendo trabajos de pintura mural: para la Naviera Elcano, para la Caja de Ahorros Municipal de Vitoria, para el recién inaugurado Hotel Commodore, donde decora la suite Castilla o el comedor del Hotel Castellana Hilton de Madrid.

Se expone su obra en la Caja de Ahorros de la Ciudad de Vitoria.

La edición de lujo de Fournier de *Los intereses creados*, de Jacinto Benavente, es considerada por el INL como obra de mérito extraordinario.





Zeramikarekin esperimentuak egin arren, ilustratzaile gisako lana ez zuen inoiz eten. *Metternich* eta *Las Atlántidas*, *Aventuras de Juan Lucas* eta *El dolor de la tierra-Zogoibi* lanetako ilustrazioak egin zituen. Itsasontzietan ere edertze-lanak egin zituen. *Edipo Rey* laneko figurinak egin zituen.

1946an Arte Ederretako Erakusketa Nazionalaren Lehen Domina irabazi zuen, Zorrillaren *Don Juan Tenorio* edizioa zela eta. Proiektu horretan hiru urtean lan egin zuen etengabe. Bere osasunerako, ordea, ez ziren garai onak: ebakuntza luze baten ondoko sendaketa amaitu ezina iruditu zitzaion. Hala eta guztiz ere, Wenceslao Fernández Flórez idazlearen *El bosque animado* eleberria ilustratzen duten zortzi laminak osatu zituen. Horrez gain, Cervantesen *La española inglesa* eleberri eredugarria ere ilustratu zuen, baita *Cien años de Ferrocarril en España* argitalpena ere.

Arte Ederretako San Fernando Eskolako Ilustrazio Marrazkiak irakasgaiaren katedratiko izendatu zuten. Eskola horretan ikasle saiatua izan ondoren, irakasle arduratsua ere izan zen.

1950ean Naipes Heraclio Fournier enpresako zuzendari artistiko izendatu zuten. Lantegiaren egoitza berriaren horma-irudiak egin zituen; horrez gain, joko-kartak sortu eta edertu zituen, eta liburuzaleei zuzendutako luxuzko liburuen edizio batzuk ere ilustratu zituen.

Teresa, beraren alaba, Ignacio Briones-ekin ezkondu zen Guardian.

Consuelo de Lezama Txilen hil zen, gerra ostean Antonio osabarekin batera hara erbesteratu baitzen. Carlosentzat izebaren heriotza amarena bezain mingarria izan zen.

Eszena Militarren Marrazkien eta Grabatuen saria irabazi zuen. Madrilgo Plaza hotela edertzeko lanen proiektua osatu zuen.

1950eko hamarkada oparoa izan zen. Espainiako Marrazkigileen Elkarteko buru izendatu zuten. Horma-irudiak egiten jarraitu zuen: Naviera Elcano ontzi-enpresarentzat; Vitoria-Gasteizko Udal Aurrezki Kutxarentzat; inauguratu berriko Commodore hotelarentzat, non Castilla suite edertu baitzuen, eta Madrilgo Castellana Hilton hotelarentzat, non jantokiaren apainketa-lanak egin baitzituen.





El periodista Antonio Manuel Campoy, en su *Tercer programa* de RNE lo presenta como el «gran elocuente del lápiz».

Sus litografías se exponen en el Palacio de Insausti de Azkoitia en Gipuzkoa, sede de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

Ilustra *Así es España* y *El Doctor Cordial*, que alterna con diversos trabajos de pintura mural: el hall, la cúpula y la sala de registros de radio Vitoria, la cúpula de la iglesia del Colegio Jesús y María de Madrid, la decoración mural de la caja de Ahorros de Madrid y la Caja Municipal de Vitoria. Se edita el segundo tomo de *Así es España*. Realiza el mural del Hotel Commodore en Madrid y aún le queda tiempo para ilustrar, con su hijo Carlos, *El lenguaje de las manos*.

Su hija Mari Luz se casa con el pintor Bernard Petit en la primavera de 1954.

Pinta las decoraciones murales del Ateneo de Madrid, la suite del Hotel Castellana Hilton y el tapiz *La conquista de Granada*.

En 1955 es nombrado socio de honor del Círculo de Bellas Artes.

Su hijo Carlos se casa con Judith Gorman en Madrid. Nunca sabrá que Judith, la tercera hija del matrimonio, su nieta, será ilustradora, como él.

Expone con gran éxito en la Sala Toisón de Madrid y en El Portalón de Vitoria la exposición monográfica sobre la edición de lujo de *Los intereses creados*. Ilustra *De Joselito a Manolete*, *Enseñanzas y lecturas marineras* y los tomos I y II de *Castillos de España*.

Cuando la Casa Heraclio Fournier le propone el proyecto de ilustrar *Platero y yo*, se entusiasma. Se traslada a su finca de Andalucía, donde adopta un burro para tomar apuntes del natural y trabaja intensamente en la obra del entonces candidato al Premio Nobel de Literatura. Sus problemas de salud van a dejar el trabajo inacabado; como no lo sabe, sigue dibujando como siempre, sin descanso, hasta el último día.

Haren lana Vitoria-Gasteiz hiriko Aurrezki Kutxan erakutsi zuten.

Fournierrek antolatutako Jacinto Benavente idazlearen *Los intereses creados* antzezlanaren luxuzko edizioa ere ilustratu zuen, eta INL Espainiako Liburu Institutu Nazionalak aparteko merezimenduko lantzat hartu zuen. Antonio Manuel Campoy kazetariak RNE irrati-etxeko *Tercer programa* saioan Carlos Sáenz de Tejada «lapitz bidezko hizlari handi» gisan aurkeztu zuen.

Bere litografiak Gipuzkoako Azkoitiko Insausti Jauregian erakutsi ziren, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen egoitzan.

Así es España eta *El Doctor Cordial* lanak ilustratu zituen, eta hainbat horma-irudi egin zituen: Radio Vitoriako korridorean, kupulan eta erregistro aretoan; Madrilgo Jesús eta María ikastetxeko elizaren kupulan; Madrilgo Aurrezki Kutxako eta Vitoria-Gasteizko Udal Kutxako horma-irudiekin batera. *Así es España* lanaren bigarren alea editatu zen. Madrilgo Commodore hoteleko horma-irudia egin zuen, eta, bere semearekin batera, *El lenguaje de las manos* lana ilustratzeko denbora ere izan zuen.

Mari Luz izeneko alaba Bernard Petit margolariarekin ezkondu zen, 1954ko udaberrian.

Madrilgo Ateneoko horma-irudiak, Castellana Hilton hoteleko suite eta *La conquista de Granada* izeneko tapizeria margotu zituen.

1955ean Madrilgo Arte Ederretako Zirkuluko ohorezko kide izendatu zuten.

Carlos, semea, Judith Gorman-ekin ezkondu zen, Madrilén. Carlosek ez zuen inoiz jakin Judith, bikote horren hirugarren alaba eta bere iloba, ilustratzailea izango zela, bera bezala.

Los intereses creados lanaren luxuzko edizioaren erakusketa monografikoa Madrilgo Toisón aretoan eta Vitoria-Gasteizko El Portalón jatetxean erakutsi zuten arrakasta handiz. Honako lan hauek ilustratu zituen: *De Joselito a Manolete*, *Enseñanzas y lecturas marineras* eta *Castillos de España* lanaren I. eta II. aleak.






La madrugada del día 23 de febrero de 1958 Carlos Sáenz de Tejada muere en su casa de la calle Tambre, en Madrid.

Es enterrado en el Cementerio de la Almudena.

En 1972 sus restos se trasladaron a la capilla familiar de la iglesia de Santa María de los Reyes, en Laguardia.



Naipes Heraclio Fournier enpresak *Platero y yo* (*Platero eta biok*, euskaraz) ilustratzea proposatu zion, eta ilusio handiz ekin zion lanari. Andaluziako finkara joan zen, eta asto bat adoptatu zuen animalia behatzeko eta oharrak hartzeko. Carlosek gogor lan egin zuen garai hartan Literatura Nobel sariduna izateko hautagaiaren lana ilustratzeko. Osasun-arazoak zirela eta, ezin izan zuen lana amaitu, baina artean hori ez zekienez, marrazten jarraitu zuen, etenik gabe, azken eguna arte.

1958ko otsailaren 23an, goizean, Carlos Sáenz de Tejada Madrilgo Tambre kaleko etxean hil zen.

La Almudena hilerrian lurperatu zuten.

1972an Guardiako Santa María de los Reyes elizako familia-kaperara eraman zuten.



JUDITH SÁENZ DE TEJADA

**Los animales, por lo general no hablan,
los de esta historia, sí.**

